er jakin zenuen irabazlea zinel? Donostian berak nuen ekainaren 14an. izkoako Foru Aldundiak latzen du txapelketa hau ahalik prozesu luzea izaten Aurrena txapelketarako hartzaileak 3 upel hautatu. Gero antolatzailek horietatik bat hautatzen eta bertatik lagin bat hartu probak egiteko. Anali, dastatu eta abar egiten Txapelketara aurkeztutako do guztiekin berdin egiten urkeztutako guzti horietatik aukeratzen dira finalerako finalean, sei horiek dastatu egiten dira eta bertan irabazlearen dute sagardo onena. n nirean izan da.

er ekarri zizun horrek? Txapelketa irabazteak pozia eman dit. Jende asko enizten eta zorionak ematera asko etorri zait. Salmentak xak bat igo dira. Batzuk Gipuzko txapelketa irabazi duen etorri dira gure sagardoa era, baina ez jendeak uste bezain beste. Gu iaz antze-gara sagardoa saltzen, zerit gehiago txapelketa irabazulako eta suposatzen

dela gurea dela Gipuzkoako sagardorik onena. Baina salmentak ez dira hainbeste igo, ez pentsa.

Noiz hasi zinen sagardogintzan? Nik txikitatik ezagutu izan dut sagardogintza gure etxean. Beti egon dira sagardogileak eta betidanik dakizkit sagardogintzaren nondik norakoa.

Familiako tradizioa da, beraz. Bai. Gure sagardotegia XVI. Mendekoan da eta gure familiako tradizio bat da sagardogintza. Generazioz generazio pasatzen joan da.

Ohere handia izango da Gipuzkoako sagardorik onena izateak? Oso ohere handia da. Lehiaketara aurkeztu diren sagardo guztietatik zuk egiten duzuna hautatzea ohere bat da. Bigarren aldia da lehiaketa hau antolatzen dela eta bietara aurkeztu gara. Iaz bigarren postua lortu genuen eta aurtengoa berriz.

Zein da hain sagardo ona egiteko sekretua? Gure Sagardoaren sekretua ez dizut lehengaiak ondo zaindu behar dira, baita ere sagardoa egiteko prozesu guztia ere. Sagarrak ondo hautatu behar dira, eta baita ondo garbitu ere, beraiekin lanean hasi aurretik. Dolarekin ere berdin egin behar da. Zukua atera eta berehala kendu behar da bertatik. Sagardoa gordetzen den upelekin ere berdin egin behar da. Guk, egur herdoilgaitzak eta poliesterreko

upelak erabiltzen ditugu, egurrezkoak baino hobetoak dira guretzako. Poliesterrak, gainera, sagardoaren tenperatura ondo mantentzen du.

Nola izaten da txapelketa?

Edozeinek har lezake parte, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatzen du. Aldunditik gutun bat bidali ohi dute, eta baizkoa emanez gero hasten da lehiaketako prozesu osoa.

Zer esan nahi du txapeldu-na izateak? Ospea eta fama ona ekartzen du. Kalitatezko materiala erabiltzen dugula esan nahi du.

Aurretik irabazi ahal duzue txapelketarik? Bai irabazi izan ditugu. Txapelketa honetatik aparte herrietan eta antolatu ohi diren txapelketak daude, baina, ez dugu ohiturarik bertan parte hartzeko. Joaten garen txapelketetara tradizioz joaten gara, beti joaten garela. Izan ere herrietako txapelketa horiek asko galdu dute. Epaimahaiak eta ezin osatuta ibiltzen dira eta batzutan sagardoak gutxi dakitenez osatuta egoten dira. Lehen Gipuzkoako txapelketa antolatzen zen eta irabazi ere egin genuen txapelketa hori, duela 15-18 urte inguru.

Nolako sagardoa izango da aurtengoa? Gu nahiko kontentu gaude aurtengo sagardoarekin. Itxura ona dauka, kolore ona eta zaporea ere nahiko onak ditu. Iazko sagardoak baino alkohola gehiago izango du baina nik uste sagardo ona izango dela aurtengoa.

Petitgei Bidea
Astigarraga Tel.: 943 45 71 88

SAGARDO NATURAL ASTIGARRAGA SIDRA NATURAL

PETRITEGI
TOLARE SAGARDOTEGIA

GARTZIALTEGI
Tolare Sagardotegia
XVI. mendetik Sagardotegia

BITTOR LIZEAGA

Gartziategi Baserrria - Tf.: 943 46 96 74 - ASTIGARRAGA

LARRE-GAIN
Tolare Sagardotegia

Tel.: 943 55 58 46 - 616 287 867

Isabel Santa Cruz Zerain
LARRE-GAIN BASERRIA • ERENOTZU • HERNANI

Zelai
SAGARDOA
Sidra Natural

Sagardoaren inguruan

HERNANIKO SAGARDOA
Tel.: 943 555 851 - Faxa: 943 550 281
Posta elektronikoa: zelai@zelai.es

REZOLA
TOLARE-SAGARDOTEGIA

SAGARDOA BOTILAN SALGAI

ARKUMEA, TXERRIKUMEA eta ANTIXUMEA ENKARGUZ

Ipintza baserrria • Santia Zeharra

sagardoa upel garbiketa

Tel.: 943 692 452
Fax: 943 692 153

Olatza baserria
20150 ADUNA (Gipuzkoa)

Tolare Sagardotegia
ABURUZA



**OATLUME
ZAR
SAGARDOTEGIA**

MIBEL AROZMENT
BIDEA 16
20115 ESTIGARRAGA

943 55 29 38
943 33 21 27

Urtarrilak 16tik IREKITA
igande eta astelehenetan izan ezik

KORTA
Sagardotegia - Itsaskitegia

KORTA
RESTAURANTE

San Lorenzo - 20217 GABIRIA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 88 71 86

**KALEAN GORTA
SAGARDOTEGIA**

Tajonar kalea, 29 - IRUÑEA - Telefonak: (948) 15 23 00 - 15 34 07



Upelak dis-dis utzi arte

Upelak garbitzea oso garrantzitsua da sagardotegietan. Sagardo berria sartu aurretik egiten dute, sagardo berriak ez dezan aurreko denboraldikoaren usainik izan. Bestela sagardoa 'alperra' dela esaten dute

④ Upeletan egoten da sagardoa denboraldi guztian. Baina sagardoa bertara sartu aurretik upel horiek prestatu egin behar izaten dira, alegia garbitu. Garbiketa hori normalean, udara amaiera aldera egiten da, upeletako sagardo guztia atera ostean.

Badira batzuk ordea, beranduago egiten dutenak, urria eta azaroa bitartean, sagardoa bertara sartu aurretik. Batzuen ustez ez da oso gomendagarria hainbeste denboran upelak garbitu gabe uztea, izan ere upelen barruan egoten den zikina bertan pilatzeko arriskua dago.

Hau irakurrita askok pentsatuko dute sagardotegietan edaten dugun sagardoa zikina egoten dela baina ez da horrela. Zi-

kin hori sagardoaren partiku zikinak izaten dira. Sagardoare prestaketa prozesuan partiku horiek upelaren beheko parte jaisten dira eta hor gelditze dira.

Tokia desinfektatu

Garbiketan hasi aurretik, orde desinfektatu egiten da upel egoten diren tokia. Gero, up guztiak hustu behar izaten dira bertan denboraldian zehar amaitu den sagardoa botileta sartu. Hori egin ostean hasi dira garbitzen, horretarako b hurrezkoa den material pre dutela: ur-mangera eta erratzeta.

Garbiketarako materiala berberdina izan da, baina ez egite

SASOIA

Uda amaiera inguruan egiten dute sagardogile gehienak garbiketa prozesua; gero, berriro, urria eta azaro inguruan

MATERIALA

Egun ur-pistolekin garbitzen dira upelak, lehen berriz dena eskuz egiten zen

LARUNBATA eta IGANDETAN eguerditan irekia

TOLARE SAGARDOTEGIA

SARASOLA

ASTEASU

Tel.: 943 69 02 83 / 943 65 26 22 639 77 84 20



LA CASONA
Erretegia - Sagardotegia
Pueblo Viejo - BARAÑAIN

Erreserbak: ANA
948 18 67 13



JON URBE / ARGAZKI PRESS

modua. Egun ur-pistolekin garbitzen dira upelak, lehen berriz dena eskuz egiten zen.

Uda amaiera inguruan egiten dute sagardogile gehienak garbiketa prozesua hau. Gero berriro egiten dute, urria eta azaro inguruan, sagardo berria sartu aurretik. Baina orduan baporea ere erabiltzen dute, upelaren barrena ongi desinfektatzeko.

Badira, ordea azaro-urrian egiten dutenak aipatu garbiketa prozesu hori, eta hauek dena batera egiten dute, garbialdi bakar batean garbitzen dituztelako upelak.

Gasak ateratzen utzi

Upelaren atea irekitakoan ateratzen dira sagardoaren partikula zikinak. Horiek ateratzen dira lehenengo. Zikin handienak kendu ostean, egun bat pasatzen utzi behar da upela barrutik behar bezala garbitu aurretik. Izan ere upelaren barruan gasak sortzen dira eta gas horiek upeletik atera aurretik bertara sartzea oso arriskutsua da, barruan itota gelditzea arriskua dago eta. Hurrengo egunean upel barrura sartzen dira eta berau garbitzen dute.

Upelera sartzeko zulo txiki bat egoten da, 35 zentimetro inguruko altuera du eta 25eko zabalera duena. Upel garbiketa ikusten dutenak harrituta gelditzen dira gisa horretako zulo batetik pertsona bat sartzen dela ikustean, baina hala da, zulo hori edozein pertsona kabitze modukoa izaten da.

UPEL TXIKIAK
Hasieran upel txikietan gordetzen dute dolaretik datorren sagardoa, 4-5 gradu inguru arte hozten uzteko



JON URBE / ARGAZKI PRESS

Kupel barrura sartutakoan hasten da garbiketa prozesua. Bertara erratzarekin eta mangelarekin upel barruan gelditutako zikin guztiak atera behar izaten dira sagardo aberria sartu aurretik. Izan ere ez bada ondo garbitzen, upelak usaina hartu lezake, are gehiago upela egurrezkoa bada.

Usaina hori geldituz gero sagardoak alfer usaina duela

esaten da, lehenik zegoen usaina hartzen duelako.

Upelerako prozesua

Upel garbiketa amaitutakoan sartzen dute sagardoa berria upel barrura, sagardotegira hurbilduko den jendeak dastatzeko. Hasieran upel txikietan gordetzen dute dolaretik datorren sagardoa. Bertan sagardoa hozten uzten dute, 4-5 gradu inguru arte. Gradu horik hartzen dituean, beste upel handiago batera pasako dute, bertan 20 bat egun irakitan igarotzeko. Eta azkenik upel garbitu berrietara pasako dute.

Alderik ere ba omen da egurrezko upeletik herdoilgaitza den upelera. Herdoilgaitzek ez dute usainik hartzen, eta bertatik ateratzen den sagardoa sekula ez da izango alperra. Berdin geratzen da poliesterezko upelakin ere. Sagardotegietan gero eta gehiago ikusten dira gisa horretako upel handi eta zuriak. Aldiz egurrezkoak, usain hori har dezake eta sagardotegi askotan daude gisa orretako upelak. Sagardogile horien iritziz, nortasuna ematen omen diote kupel horiek sagardoari eta sagardotegiarri. Frantzian ere ezagunak dira egurrezko upelak xanpaingileen artean. Han hemen bezalaxe, egurrezko upeletara pasatzen dute xanpaina, herdoilgaitzetan eduki ostean. Sagardori bezala gertatuk zaio xanpainari egurrezko upeletan, falta zaion nortasun puntu hori hartuko du bertan.

BUENAVENTURA

Tolare Sagardotegia



Eskaerak:

Tel. 943 65 73 22 - 659 100 397
Ezkerreko auzoa: AS GARRAGA



aulia
Sagardotegia

Aulia-enea
Tf.: 80 60 66

20250 LEGORRETA
Gipuzkoa



ISASTEGI
sagardotegia

Isastegi Sagardotegia, S.L.
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A / 20400 TOLOSA
Tel.: (943) 65 29 64

GIPUZKOAKO SAGARREN UZTA



R. ZABALA

Sagardotegia

Larunbat eta igande eguerditan zabalik,
enkarguz irekita, igande gauetan, beti

Txotx denboraldian bakarrik

Garagartza baserria

Tel.: 943 690 774 - 20150 ADIINA (Gipuzkoa)

Txiki
poli

PENTSIOA
TABERNA
JATETXEA

Tel.: 943 63 53 57
Musika plaza
20800 ZARAUTZ
txikipoli@euskalnet.net

BEGIRISTAIN
tolare sagardotegia



Iturriotz baserria 20267 Ikaztegieta tel.: 943 65 28 37 - 607 36 57 43

sagardoa egileak

TXIMIST
sagardotegia

Sagardotegiko menua
Eguneko menua
Aukerako menua

943 88 11 28
Gudarien etorbidea, 2. ORDIZIA

www.ordizia.net/tximista

ARRATZAIN
TOLARE-SAGARDOTEGIA

Arratzain Zahar Baserria
Tel.: 943 58 09 74
USURBIL

EGVZKITZA
TOLARE-SAGARDOTEGIA

abal Auzoa, Amaroiz • Tel.: 943 67 26 13 • 20400 TOLOSA (Gipuzkoa)

ola
SAGARDOTEGIA

Kinuaizatu
Bertako sagardoa
egindakoa
Menua 20 €
• Egunero arratsalde irekita

102 Meaka Auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

ITURBETA
SAGARDOTEGIA

IFNDA 945 44 53 85 ARRAGA AUZOIA - ARAMAIO

URBITARTE
SAGARDOTEGIA

Ergolena auzoa
Tel.: 943 18 01 15
20211 AYAU

Sagardoa, Gipuzkoan bakarrik?

OHITURA
Betidanik egin izan da Euskal Herriko baserrietan sagardoa, dolareak ez baitaude Gipuzkoan bakarrik

Sagardoa beti Gipuzkoa-
rekin lotu izan den edaria
da. Baina horrek ez du esan nahi
sagardoa Gipuzkoan bakarrik
egiten denik Euskal Herrian.
Gipuzkoaz gain Araban, Nafa-
roan, Bizkaian eta Iparraldean
ere egiten baita sagardoa.

Betidanik egin izan da Euskal
Herriko baserrietan sagardoa,
dolareak ez baitira. Gipuzkoan
bakarrik aurki daitezkeen tra-
mankuluak.

Araba

Araba aldean ere badaude sagar-
doteziek, 9 hain zuzen ere. Beti
ardoarekin erlazionatu den pro-
bintzia da baina bertan sagardo-
ak oinarri sendoak ditu, bere
arrastoak edozein bazterretan
aurki baitaitezke. Probintzi ho-
netako sagardotegiak desberdi-
nak dira Gipuzkoakoekin alde-
ratuta. Gainera, ez dute horrela-
ko ohiturarik sagardotegira
joateko.

Bertako sagardotegiak ezin
dute sagardotik bakarrik bizi eta
bestelako jatetxe moduan ere
funtzionatzen dute. Ez dago txo-
txerako zaletasun handirik. Zai-
la suertatzen zaie mahaitik jaiki-
tze hori sagardoa edatea nahi
duten bakoitzean.

Hori gutxi balitz sagardotegie-
tako menua mugatua dela irudi-
tzen zaie bezero askori eta ho-
rrek ere jendea pixka bat atzera-
tu egiten omen du. Baina, hala
ere, oztopo guzti hauek gaindi-
tzen ari dira arabarrak eta gero
eta gehiago joaten da bertan
dauden sagardotegietara, giroak
erakarrita.

OHITURA
Betidanik egin izan da Euskal Herriko baserrietan sagardoa, dolareak ez baitaude Gipuzkoan bakarrik


JATETXE MODUAN
Batzuek ezin dute
sagardotik bakarrik
bizi, eta bestelako
jaketxe moduan ere
funtzionatzen dute

Bizkaia

Bizkaian ere sagardoak gero eta
presentzia handiagoa du. Bertan
12 sagardogile aurki ditzakegu,
Gipuzkoa eta gero, probintzia
hau da sagardogile gehien di-
tuen probintzia.

Guztiak, gainera Bizkaiko Sa-
gardoaren izeneko elkartearen bildu-
ta daude. Bizkaiko sagardogile-
ek, Bizkaia bertako sagararekin
egindako sagardoa egitea dute
helburu. Bizkaiko Foru aldun-
diak ere laguntzen die horretan.
Bizkaian lantzen diren sagarrek
ikereta bat egin zuten. Sagar
guztiak analizatu ostean sagra-
doa egiteko egokiena zen sagra-
rra hautatu eta berorekin egiten
dute sagardoa.

Sagardo tradizio honez gain
Bizkaia badu beste bat ere, txo-
kolinarena. Sagardogile askok
sagardoa ekoizteaz gain txakoli-
na ere ekoizten dute.



LANGILE BAT eta hainbat bezero Iruñazarra

USABAL

Usabal Industriadun, 22 • B. Amaroiz auzoa • Tel.: 943 623 130 • 20300 TOLOSA


SETIEN
SAGARDO NATURALA

943 55 10 14
Gurutza-Berri • Oztaran auzoa • URNIETA

MINA
SAGARDOTEGIA

Inaxio Ollokiergi Zubillaga

Txorikokietan p. • Tel.: 943 55 52 20
20115 ASTIGARRAGA



gardotegian, Iruñean. LANDER FERNANDEZ DE ARROYABE / ARGAKZI PRESS

Iparraldea

Iparraldeko kasuan etxerako sagardoa egiten dutenak asko dira, baina sagardotegiak berri gutxi, hiru hain zuzen ere. Baina hauek, kasu honetan ere bai, Euskal Herriko beste probintziek baino arazo gehiago dituzte. Hasteko izenarekin. *Cidre* izena ezin dute erabili sagardoa komertzializatzeko. Izan ere, hitz horrek ez du bere baitan hartzen sagardoa hitzak duen definizioa bere osotasunean. Beste izen bat erabiltzera behartuta daude, *sagarra oinarri duen edaria* esanahia duena.

Arazoei aurre egiten ari dira eta iparraldean ere elkarre bat sortzekotan dira, jendea sagardotegietara hurbiltzeko eta sagardoari bultzada emateko helburuarekin.

Iparraldean ere, sagardotegi gehienetan bezala ekoiztutako sagardo gehiena botiletan saltzen dute. Hemen ere ez dago tradizio handirik sagardotegira joan eta txotxetik edateko. Ekoizpenerako erabiltzen duten sagar gehiena atzeritik ekarritakoa da. Baina hemen ere, Bizkaian bezala, bertako sagarrarekin ikerketak egiten ari dira, sagardoa egiteko zein den sagarrik onena jakiteko.

Nafarroa

Nafarroan ere badira sagardo ekoizleak. Baztan inguruan aurkitzen dira gehienak. Izan ere Iruñatik gorako biztanleak, sagardotegira joatea otuz gero, Gipuzkoako sagardotegietara jotzen dute. Horrek nafarrei atzerapena ekarri die sagardoaren ohiturak landu eta gartzetarakoan.

Kontuak kontu 27 sagardotegi daude Nafarroan zehar banatuak. Hauek ere azterketak egiten hasi dira Nafarroan betan ateratzeko den sagarrarekin. Azterketa horiek amaitutakoan aterako diren emaitzekin sagardoa ekoizteko zein den sagar nafarrik onena erabakiko dute eta berarekin ekoiztutako sagardoa egingo dute Nafarroan ere.




TXINDURRI
SAGARDOTEGIA
NEKAZALTURISMOA

943199389 / www.txindurri.com ITZAR




Urte osoa irekita

Nabaz auzoa
948 637212
LESACA

Tolare Sagardotegia



TOKI ALAI
TOLARE • SAGARDOTEGIA

Tel.: 948 50 40 57
LEKUNBERRI (Nafarroa)



IPARTXO
TTERNA-ERRETEGIA
SAGARDOTEGIA

Zangotza k., 40
Tel./faxa: 948 246 478
www.ipartxo.com

URDAIRA
Sagardotegia
TOLARE SAGARDOTEGIA



URTARRILAK 16ñk IREKITA
Urdaira baserria - 943 37 26 91
20170 Aginaga-Usurbil

BERRIA


SIMAK
MAQUINARIA ENOLOGICA

**SAGARDO BOTILAKO
HONDARRA GARBITZEA**
Errekatxo plaza, 5-6 • 20115 ASTIGARRAGA
Tel./faxa: 943 55 56 51 • 609 428 622

**GIPUZKOAKO
KORTXO TAPOITERIA**

Ardo, sagardo eta txakolinarentzako
kortxoetan espezialista

Errekatxo Plaza, 6 - Tel.: 943 55 56 51 - 609 42 86 22 - ASTIGARRAGA




SAGARZAZU TOLARE-SAGARDOTEGIA

Astearretik igandera irekita

Barrenetxea baserria - Zimizarga auzoa
Tel.: 943 64 11 38 - 20280 HONDARRIBIA

Lehen sagardoa probatzera, orain parrandara



GAUR egun parranda egin asmoz joaten da jende gehiena sagardotegietara. ION URBE / ARGAZKI PRESS

Duela urte batzuk sagardotegira sagardoa dastatzera joan ohi ziren, egun aldiz gehiago dira parranda botatzeko aitzakian joaten direnak

Duela urte batzuk arte sagardotegietara sagardoa dastatzera joan ohi zen jendea, bertan zeuden upel desberdinetatik txotx egin, eta gero, gehiena gustatutakoa erosi egiten zuten.

Egun, aldiz, gehiago dira sagardotegietara parranda botatzera joaten direnak. Bertan bapo afaldu, sagardo nahikoa edan eta alai-alai kalera joaten direnak, parranda giroan. Egun bi publiko horiek dituzte sagardotegiek, baina, normalean ez dira egun berdinetan joaten.

Astegunetan dastatzera

Astegunetan joaten den jendea normalean elkarteetako kideak edo gizon koadrilak izaten dira. Kupelaren bueltan lasai-lasai afaltzera. Izan ere aste egunetan giro lasaia egoten da sagardotegietan eta afaldu ostean bertulian gelditzen dira. Elkarteetako kideak aste egun horiek

aprobetxatzen dituzte sagardoa dastatzera joateko. Sagardo desberdinak probatzen dituzte eta gero gehien atsegin zaien erosten dute, elkartera eramateko xedearekin.

Gizon koadrilak beti izan dira sagardotegietako jaun eta jabeak. Egun ere hala izaten jarraitzen dute. Astegunetan koadrila bat baino gehiago topatuko dugu edozein sagardotegitan. Bertara joaten dira, sagardoaren aitzakian afaltzera. Lasai-lasai afaldu ohi dute, eta afaltzea amaitutakoan askotan bertan gelditzen dira kafea, kopa eta purua erreaz kartetan jokatzeko.

Emakumeak ere joan ohi dira, sagardotegietara. Duela urte gutxi hasi ziren emakumeak sagardotegietara joaten, baina, ere gero eta sarriago joaten dira. Gizonek betiko ohitura izan dutena emakumeak ere beren bihurtzen ari dira, gizonek bakarrik ez dutelako eskubidea sagardotegietara joateko.

Aste egun horietako egunik indartsuena osteguna izaten da, bertara jende asko joaten baita afaltzera. Elkarteetan ere egun horietan jende asko biltzen da, koadrila askok osteguna aprobetxatzen ditu-eta afariak egiteko, nahiz eta hurrengo egunean lanera joan beharra izan.

Asteburuan parrandara

Aste bukaeretan berriz parranda giroa izaten da nagusi sagardotegietan. Beraz, zailagoa izaten da aste egunetan joaten den jendea bertan topatzea. Haiek giro lasai bilatzen dute aste egunetan, baina, aste bukaeretako giroa ez da hain lasaia izaten. Izan ere, ondo pasatzera eta parrandara joan ohi da jendea aste bukaeretan.

Askorentzat moda bat bihurtu da sagardotegira joan eta pa-

UXARTE
BASERRIKO OILASKOA ETA ETXKO OKELA
SAGARDOA URTE OSOAN TXOTX-eri
BENETAKO SAGARDOTEGIA
Deitu, etorri eta egiatzatu.
Montorra, 6 • Tel.: 94 630 88 15 • ZORNOTZA

IBARRA
SAGARDOTEGIA
Ibarra baserria
Ibarra auzoa, z/g
ZORNOTZA
94 673 11 00
Etxean egindako sagardoa

EGI-LYZE ZATOZ FRESKURARI!!
• Eros ezazu gure etxeko sagardoa •
• Sagardotegian bertan •
• Eskualdeko dendetan •
Zamalbide auzoa • 943 523 905 • ERRETERIA

URKIOLA
SAGARDOTEGIA
Urte osoan irekita
Igara Bidea, 37 - IBAETA AUZOA
20018 DONOSTIA • 943 210 168 - 615 786

AXPE
SAGARDOTEGIA
TRABOLINDEGIA
AXPE baserria Atxondo auzoa • 655 734 625 MARKINA-XEMEIN

Txotxa urte osoan
Janaria prestatazeko bi sukalde
Parrila, burduntzi eta gurti
Afari-bazkariak lagun artean egiteko toki aproposa
120 laguntzako tokiak
Janaria eraman behar da


rranda egitea. Euskal Herriko bazter guztietatik joaten dira koadrilak sagardotegietara, askotan autobusean. Edanak ondorio izaten duen lez, mozkortzen badira ere, gero autorik hartu beharrik ez izateko. Normalean gipuzkoarrak ikusiko ditugu sagardotegietan baina nafarrak eta bizkaitarrak ere aurkitu ohi ditugu.

Koadrila askok dute ohitura urtean behin behitzat sagardotegira joateko, ondo pasatzera eta bide batez sagardoa probatzera. Horretarako aste bukarak aprobetxatzen dituzte, ostirala edo larunbatak, hurrengo egunean lanerako jaiki beharri ez izateko.

Jende asko juntatzen da aste bukaeretan sagardotegietan eta guztiak asmo berdina izaten dute, ondo pasa, sagardoa dastatu eta parranda eder bat botatzera. Koadrilak, ikasleak, despedidak...edozer gauza ospatzen ari den jendea aurki daiteke aste bukaeretan sagardotegietan.

Bestalde, familiak ere joaten dira aste bukaeretan sagardotegietara. Hauek ere aste bukaeretan joaten dira sagardotegietara, hurrengo eguna jai izaten dutelako, baina ez dira parranda botatzera joaten. Hauek izaten dute asmoa lasaiagoa izaten da, sagardo pixka bat edanez bapo afaldu eta famili giroan egotera, nahiz eta askotan parrandara joaten direnek ez dituzten lasaitasun eta patxada handiegirik.

Aste bukaeretakoa eta aste egunetakoa jendeak, ordea, beti asmo bera izaten du sagardotegira joaten direnean, giro euskañun batean ondo pasatzera eta nola ez sagardoa edatea. Batzuk, giro lasaiagoa atsegin dutenak, aste egunean joango dira; besteak, berriaz, aste bukaeran.



GAZTEAK asteburuetan joaten diren bezala, zaharxeagoek aste egunak gustukoago dituzte. JON URBE / ARGAZKI PRESS

AMEBI
Sagardotegia

Irtarrilaren 1 Oetik aurrera
TXOTX denboraldia
ZABALIK

☎ 16 25 23

Zubi Erreka auzoa, 9
20210 - LAZKAO

AUZMENDI sagardotegia



BETIKO EUSKAL SAGARDOTEGIA

- Haragia eta arraina txingarretan erreak
- Sagardotegiko menua 23,75 € Bez barne

Industria (aldeak) - 1. aldea - (Lagunak elkartearen aurretik)

31010 BARANAIN (Nafarroa)

Tel. 948 18 59 57 / 948 18 59 19

Deitu lekua sagardotegia



Berezitasunak:

- Bakailaoa
- Txuletoia eta solomilloa foie erara
- Etxeko postreak



Erreserbak: 948 - 19 01 51 - www.pil-pil.net

sagardoa denboraldi amaiera

Denboraldia amaitutakoan, zer?

Sagardotegiak denboraldian zehar jendez lepo egoten dira. Hasi urtarril erdialdetik eta apiril amaiera arte koadrilak, erosleak, familiak eta abar izaten dira bertan. Baina denboraldia amaitutakoan, zer gertatzen da sagardotegiekin?



SAGARDOTEGIAK itxitakoan, upeletan geratzen den sagardoa botiletan sartzen dute, hostalaritzan-eta banatzeko. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

SUTONDO SAGARDOTEGIA

Sagardotegiko menua

Bakailaoa parrillan • zapoa • txuleta goxo-goxoak

☎ 94 613 9003

BERRIATUA

Olagi Jatetxea - Sagardotegia



☎ 943 88 77 26
ALTZAGA



berria

publizitatea: ☎ 943 30 40 30

● Euskaldunok behar dugun berria

Oianume Sagardotegia



- Sagardotegia (Urtarriletik urrira zabalik): Etxean egindako sagardoa (tolarea). Txotx
- Jatetxea (urte osoan zabalik): 3 jantoki pribatu enpresentzako eta interneten sartzeko aukera 3 jantoki kolektibo. Menua eta karta. Ezkon-bazkariak, otorduak, jaunartze-bazkariak, agur-afariak...

Gasolindegiairean aurrean gaude. Aparkaleku handia

☎ 943 55 66 83 / 943 33 25 05 URNIETA
oianume@oianume.com / www.oianume.com



 Sagardotegi batzuk sagardo denboraldian bakarrik egoten dira irekita, urtariletik apirila bitartean. Epe horretarako langileak hartzen dituzte bezeroak zerbitzatzeko. Nahiko lan korapilotsua izaten omen da. Izan ere ostalaritzan lan egiteko jendea topatzea zaila da. Areago 3-4 hilabetetarako bakarrik bada. Bestalde, nahiago izaten dute langileak euskaraz jakitea, eta, horrek ere, gehiago konplikatu du langileak bilatzearen arazoa. Langile horiek askotan ikasleak izaten dira, sagardo denboraldian zehar sos batzuk ateratzera joaten direnak. Beste batzuk langileak ere izaten dira, 3-4 hilabetetan soldata estra bat jasotzera joaten direnak. Baina sagardotegietako nagusi gehienak bat datoz zerbitzari profesionalak bilatzea zaila dela esaterakoan. Hala ere, hori «normala» dela diote, «oso epe motzerako» lana da eta.


Denboraldia amaitutakoan sagardotegia bera itxi egiten dute eta bestelako lanak egiten hasten dira sagardogileak. Asko, banaketan. Izan ere tabernak eta jatetxeak denboraldia amaitutakoan hasten dira lehendik hautatu duten sagardoa erosten. Beraz sagardotegietatik pare bat hilabetean sagardoa botiletan sartzen eta banaketan aritzen dira, txoko guztietara lehenbailehen iritsi nahian. Nahiko hilabete lanpetuak izaten omen dituzte maiatzekoa eta ekainekoa, sagardo guztia botiletan sartu eta erosleari emateko.

Zerbitzatzeara amaitzen dutenean jada datorren urteko denboraldiarekin pentsatzen hasi behar izaten dute. Sagastiak zaindu, landu eta abar. Lan horretan, dagoelako datorren urteko denboraldiaren nondik norakoak. Batzuk abuztuaren sagarrak jasotzen hasten dira, beste batzuk urrian. Gero, bildutako sagar guzti horrekin sagardoa egiteko.

Sagardoa egitearen prozesua amaitzerako denboraldi hasiera gainean izaten dute eta urte guz-



DENBORALDIA hasi aurretik, lan handia ematen die sagardotegia atontzeak. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS



MAHAI eta upelak huts-hutsik geratuko dira denboraldia amaitutakoan. IMANOL OTEGI / ARGAZKI PRESS

tian zehar itxita egon den sagardotegia denboraldirako prestatu behar izaten dute. Jangela atondu, sukaldea eta ontziak distiratsu utzi... dena denboraldia asteke prest egon arte. Lan hauek abendu aldean hasten dira, denboraldia hasteko hilabete eta erdi inguru falta denean. Hasierako egun horietan nahiko lasai ibiltzen omen dira sagardotegia atontzen. Izan ere hori bigarren maila batera utzita izaten dute, sagardoari azkeneko ukituak ematen ibiltzen dira eta. Baina hasierako bi aste horiek pasatzean, atonketa lanetan ibiltzen dira buru belarri, 7-8 hilabetez itxita egonda dena garbitzen eta prestatzen.

Sagardotegitik jatetxera

Sagardotegi asko urtean zehar ere irekita egoten dira, baina ez dute sagardotegi moduan lan egiten, jatetxe moduan aritzen dira. Bertan eguneko menua, karta eta antzekoak aurki ditzakegu urte osoan zehar, edozein jatetxetan bezala. Baina denboraldia asten denean jatetxearen beste zati bat irekitzen dute, sagardotegia. Bertan upeletan sartutako sagardoa aurki dezakegu, betiko sagardotegietan bezala. Eta noski, sagardotegietan hain ohikoa den menu tradizionalarekin. Gisa honetako sagardotegiak gero eta ugariagoak dira gure artean. Denboraldian zehar behar dituzten azpiegiturak—sukaldea, jangela, langileak...—aprobetxatu egiten dituzte jatetxe moduan funtzionatzeko.


Beraz, denboraldian zehar, lan bikoitza izaten dute, egunero lanari sagardotegira datozenak gehitu behar baitaizkio. Horretarako, langile gehiago hartzen dituzte, sagardo denboraldiak irauten duen bitartean. Hauek, beste sagardotegien moduan arazo berbera izaten dute langile horiek kontratatzeke.

Itxita ala irekita mantentzea jabe bakoitzaren esku dago, baina bi sagardotegi mota horietan beti aurkituko dugu sagardotegietan topatu ohi den giro euskindun eta jatorra.

**Txotx garaian
zatoz urnietara!**



Urnietako Udala



Aukeratu beharrik gabeko menua

Egun gero eta jatetxe eta jaki aukera zabalagoa dago. Baina sagardotegiek ez dute hau kontuan hartzen. Bertan betiko menu paregabea aurkituko dugu, dena kalitatezko eta bertako produktuekin egindakoa

☉ Sagardotegi batetara joatean duda gutxi izaten da jatekoa hautatzerakoan, ez baita aukera handiegirik egoten. Horretan ere badute xarma sagardotegiak. Berez sagardotegiak sagardoa dastatzeko lekuak dira, ez dira jan tokiak. Jateko ohitura hori ere hortik dator. Sagardo desberdinak probatzeko, tartean jan egiten zen, sagardo desberdinen zaporeak ez nahasteko. Horrela egundaino. Egun, ez zaio sagardoari bakarrik ematen garrantzia, baita jatekoari ere.

Sagardotegietan jateko antzekoa aurkitzen dugu. Gehienetan, gainera, bertako jatekoa eta kalitatezkoa. Hasteko bakailao tortilla aterako digute. Gero bakailao frijitua edo, bestela, piper berdeak iritsiko zaizkigu mahaira. Eta azkenik, txuleta txanda iritsiko da. Postrerako berriz, gazta irasagarrekin eta intxaurrak izaten dira jateko. Sagardotegi batzuetan Sagarki izeneko sagar gozokia ere ateratzen dute. Gaur egun, menu tradizional hau aurki dezakegu edozein sagardotegietara joaten garela ere. Baina, menu hau bestelakoa zen lehen. Bertara gerturatzen zirenek sardinzarrak eta atuna izaten zituzten mahaian.

Hau guztia sagardoarekin

bustita jan ohi da sagardotegietan. Baina sagardoarekin behar bezala bustitzeko gomendio hau jarraitzea komenigarria da:

Sagardoaren temperatura egokia 10-13 graduen artean da. Freskoa baina ez hotza.

Botilak leku freskoetan gordetzea da komenigarria. Epe-lak egonez gero, edo tenperatura egokian ez badaude urarekin hoztu behar da, tenperatura egokira irits arte.

Jada botila irekitzen dugunean hoberena dena ustea da. Bestela sagardoak duen usaina eta karbonikoa galdu egiten dira.

Sagardoa zerbitzatzerakoan, 30 bat zentimetrotako altueratik atera behar da edalontzira. Edalontzia, kristal finekoa, zabal eta garai izatea da egokiena, sagardoaren esentzia guztia mantendu ahal izateko.

Sagardoa zerbitzatzen denean kantitate gutxi zerbitzatzea hobe da, trago batean edateko modukoa. Bestela, edalontzian utziz gero, bere betiko ezaugarriak galduko lituzke.

Botilaren ipurdian liga edo kondarra ikustea garrantzitsua da, sagardoa naturala den seinale.



TXULETA eta intxaurrak ezinbestekoak dira sagardotegietako menuan. BERRIA

*"Edari bakana, milurtekoa, erroetaraino benetakoa...
Egiazko artelana: horixe da sagardoa, gure-gurea dena"
(Antxon Agirre Sorondo)*



Hernaniko Udala